



EENTERI, NERE JAIOTERIARI

Eenteria, nere aurtzaro zorioneko
seaska kutun-beroa:
nere ba'endik biotza igeska gaur zuregana
pozez urturik dijoa.

Pozez urturik bertsoz jantzita egan dijoa
zuri agur-egitera:
posaren pozez bidezkarria jaioterira
itzuli oi-dan antzera.

Aspaldi ontan, osto igar baten antzera, Jaunak
Zugandik urun narama:
baña ni zutaz aztu baño len, bere semeaz
aztuko litzake ama.

Aura nintzala, zuri begira, oartu nitun
bertsoetako gogoak:
argatik beti, lotan zaudela, kanta oi ditut
zu zaintzen, nere bertsoak.

Umetandikan biotz-erdian irarita antxe
daramat zure irudia,
nekin jaio ta nekin ilko dan oroigai kutun,
irudi itzokor-garbia.

Atoz, begira nigan dirdiraz dagoan zure
irudi eder-zorgiña,
ama langile beti gaztea, pitxi polita,
Oiarso'ko eregiña.

Lanean ekin. Zure eraietan bizmen beriak
jariko dizkitzu lanak,
ta zure sabel zafetik, beriz jaioko dira
seme ospetsu-laztanak.

Ekin lanean. Bañan otoitzez lana igurtzita,
bidali zuzen Zerura ..
Izan betiro Eliz-Amaren zaitzale zintso,
fededun euskaldun ura.

Aren, ez aztu, maitasun-musu baten antzera,
irarita bekokian,
guraso zafak utzi zizuten beren izkuntzaz
beren eriotz-aldian.

Izkuntza ori zurea da-ta, zure koroiko
pitxi bikaña dezu-ta:
zure obenez bera iltzen ba-da, betiko dezu
zure izen ona galduta

Ara, an, arizko esi-gañean ego-zabalik
zur' aingeru zaintzalea,
andik ezpata dirdiratsuz adi-erazten
jo bear dezun bidea.

Eri maitea...! Piztu, ba, piztu zure baruan
itxaropenaren sua...
¿Ez ote-dezu, antxen uruti ekusten zure
izar onaren kiñua..?

Aurera beti ! Maxin, Isasti, Zabalbide ta
Ugarte'n ama lerdena...
Oraindik ez da zukan agortu Tripoli eta
Oran'go zure kemena:
oraindik ba-du seme argiak egin-azteko
zure sabelak almena...
Izan, ba, laister Gipuzkoa'ko koroigañeko
pitxi dirdiratsuen.

Jauregi tar Luis.

EL ANDORRANO

CAMISERIA, ROPA BLANCA, GENEROS DE PUNTO, LAYETTES, SECCION ESPECIAL DE EQUIPOS PARA NOVIAS Y NOVIOS

**CAMBIO DE MONEDAS
EL CAMBIO MAS VENTAJOSO
PEÑAFLORIDA, 8**

Junto a la estación de la Frontera Teléfono 10607

Viuda de Antonio Lafont e Hijos

Teléfono 10607

SAN SEBASTIAN

1929